



Elkarbizitza- Hezkidetza plana

1.- SARRERA

CEIP Zaldibar HLHI Zaldibarren kokatuta dagoen D ereduko ikastetxe **publikoa, plurala** eta guztiei **irekia** da. Momentu honetan bi lerroko ikastetxea da. Herrian dagoen Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola bakarra da.

Herri txikia izanik, herriko eragile ezberdinekin elkarlana eta komunikazio zuzena daukagu harreman estuamantenduz: Zaldibarreko hainbat elkarte ezberdinekin, eskolaz kanpoko kirol taldeekin, udalarekin, Gizarte zerbitzuekin, kultura, berdintasun eta euskara teknikariek, Osasun zentroko pediatrarekin, Berritzegunekoekin, koordinazioa DBHkoekin eta Haurreskolakoekin... Honez gain, hainbat ekintza osagarri antolatzeko elkar lanaegiten da.

Ikastetxea eta familien arteko harremana sendotzearen aldeko apustua egiten da eta komunikazioa arrakastatsua izateko informazio trukaketa eraginkorra bilatzen da: bakarkako elkarrizketak, mailako bilerak, gelako ekintza ezberdinetarako kolaborazioa eskatzen denean, IGErekin koordinazioa, OOGnarekin, eskolako web orrialdearen bitartez...

a)NORTASUN EZAUGARRIAK

CEIP Zaldibar HLHIin Kultura eta curriculum lantzeko aberasgarria den ikasleria dugu eskolan, EAetik kanpoko herrialde ezberdinetatik etorritako familiek osatzen dute eskola komunitatea. Ezaugarri, gaitasun eta beharrak kontutan hartzen dira, errespetuz ikasleen garapenerako.

Baloreak eta jokabide egokiak barneratu eta sustatzeko, komunitate osoaren elkarlana sustatzea dugu helburu, elkarbizitza positiborako bidean. **Hezkidetzeta:** gure ikasleak rolak eta estereotipoak alde batera utzita hezi, berdintasuna eta errespetua sustatuz.

Elkarbizitza: errespetua eta besteen pentsamendu, jokabide eta iritziak onartuz. Gatazken kudeaketa baketsua landuz.

Ikastetxe euskalduna izanik, euskal kultura, hizkuntza eta Zaldibarko ohiturak transmititzen dira egunerokotasunean zein data esanguratsuetan. Irakaslegoaren etengabeko formakuntza, metodologia berriengatik apustu eginez, hobekuntzara eta gaurkotzera bideratzen da.

Ikaslearen interesetatik abiatuta, gaitasunak eta lorpenak goraiatu eta garatzera bideratua, inklusiboa da eta konpetentzietan oinarritzen da, taldeko lana eta harreman osasuntsuak izatera bideratutako dinamikak landuz.

b)JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun eskolak hezkidetzan eta bizikidetzan positiboan oinarritutako hezkuntza ematearen erronka eta erantzukizuna dugu. Ikasleen identitatearen eskuhartze ukalezina dugu, honekin genero indarkeriari aurreahartzeko eta berdintasunean hezteko aukera dugularik.

“Eskola komunitatea osatzen dugunon arteko **ELKARBIZITZA**, errespetuan, berdintasunean eta bizikidetzan positiboan du oinarria. Bizimodu eta iritzi anitzen onarpenean eta gatazken konponketa baketsuan aurrera eginez.”

“**HEZKIDETZA**, mota guztietako sexismoa gainditzean, genero-berdintasunean, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan/eskuhartzean, sexu identitateen aniztasunarekiko errespetuan eta era guztietako bazterkeria ezan oinarritzen da.”

2.IKASTETXEKO ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA

a)IBILBIDEA

Zaldibar HLHI ikastetxean, elkarbizitza eta hezkidetzaren inguruan lan egiten ari gara urteetan.

2008. ikasturtean, Bizikidetzan plana egin zen eskolan eta ordutik elkarbizitza behatokia ezarrita dago. Eskola komunitateko eragile ezberdinek osatzen dute behatokia: guraso, ikasle, irakasle, irakasle goa ez den langile (jantokikoak eta garbitzaileak) eta udal ordezkariak. Bertan, eskolako elkarbizitza zaindu eta hobetzeko, eskola komunitateko iradokizunak jaso, aztertu eta ikasturteko elkarbizitza eta hezkidetzarekin zerikusia duten ekintzen antolaketa eta erabakiak kudeatzen dira. Ikasturtean gutxienez bi aldiz elkartzen da.

2023-2024 ikasturtean Hezkidetzako zutabeak eta A2030eko helburuak lotura dutenez, Ekaineko behatokian A2030 batzorde burua eta ikasle ordezkariak ere parte hartu zuten, hemendik aurrera horrela izango delarik.

2009-2010 ikasturtetik Eskolako elkarbizitza batzordea indarra hartzen joan da, gaur egun eskolakofuntzionamendurako ezinbestekoa delarik. Ikastetxeko elkarbizitza positiborako irakaslegoarekin koordinatu, estrategiak eratu eta antolakuntzari dagozkion erabakiak hartzen dira. Zuzendaritzak ahalbidetzen du, astean behin, batzordean parte hartzen duten irakasleak elkartzea eta, behar denean, ikasleak ere.

2014/2015 ikasturtean, Paco Casconen "Educar en y para el conflicto" eta "Juegos y dinámicas de educación parala paz" formakuntza egin zen, [gatazken konponketa baketsua txertatuz eskolako arauetan \(4.zutabea\)](#).

2015/2016 ikasturtean Aitor Albizuren "Bullying gabeko gelak", "Tratu txarren aurrean, zer egin? Zer aztertu?" formakuntzarekin hasi zen eskola. Ordutik, geldiezina den gai honen inguruko formakuntza eta hazkundera, gure eskolako irizpide eta oinarritzat hartu dira.

2018/2019 ikasturtean eratu zen BAT taldea, ikastetxeko ikasleek izan ahal dituzten jazarpen kasuak bideratzeko taldea da. Asteartero batzartzen da. Zuzendari, Ikasketa buru, aholkulari, elkarbizitzako arduradun, hezkidetzako arduradun eta jantokiko arduradunenez osatua dago. Talde honek lotura estua du elkarbizitza/hezkidetzeta batzordearekin, bideratu eta kudeatu beharreko tratu txarren arazoak, ugari izan daitezkelako. Elkarbizitza/hezkidetzeta batzordeko ikasle ordezkariak, BIZIKASI ekimenaren ezaugarriak eta BAT taldearen zeregina adierazteko, transmisio hitzaldiak geletan ematearen ardura daukate (Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 6. maila arte).

Honez gain, urtero, eskola komunitate osoan formakuntzak ematen dira, euskaraz eta erderaz, Zaldibarreko herriak duen elebiduntasunari erantzuna emanez. Formakuntzak, familia, irakaslego ez den eskolako langilegoari eta eskolaz kanpoko ekintza eta kirolen begirale eta arduradunei ematen zaizkie.

Ikastetxeko guraso elkarteko ordezkariarekin, hilero, batzartzen da zuzendaritza, elkarlana ezinbestekoa delako bai eskolak eta bai IGEk antolatzen dituen ekintzetarako. Eskolan egiten diren hainbat jarduera ezberdinen kudeaketan parte zuzena dute; eskolaz kanpoko ekintza osagarriak genero ikuspegia kontutan harturik planifikatzen dituzte, ekintzen eskaintza oso zabala eta anitza delarik.

Hainbat ekintzetan eskolako ikasle guztiek parte hartzeko aukera berdintsua izan dezaten, IGEk diru-laguntzak ematen ditu.

Urteak dira Zaldibarreko udal agente ezberdinekin (berdintasun saila, gizarte zerbitzuak, euskara zerbitzua, administrazioa, Durangaldeko mankomunazgoa...) elkarlanean gabiltzala, eta, aldi berean, prebentzio saioak antolatzen dituzte ikasle, familia eta irakasle ez diren langile eta monitoreentzat:

- Urtero udaleko berdintasun sailak antolaturiko heziketa sexuala programan, "**tratu onak**" tailerra egiten da Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan. 2023-2024. ikasturtean, mailako ikasleei bideratzea erabaki zen. **Genero berdintasuna eta harreman sexu-afektiboak (7.zutabea)** lantzen dira gelako curriculumaren barruan.

Berdintasun sailak bideratuta, lehen hezkuntzan, indarkeria matxistaren prebentziorako tailerrak eman dira EMAGINen eskutik, harreman sexu afektiboen tailerra EMAIZEn eskutik.

Etxeko zein lan esparruan gertatzen diren disparekotasunak identifikatzen dira eta berdintasunezko beste material batzuk aurkeztu eta lantzen dira tailerrean dinamiken bitartez.

Tailerrean landutakoaren memoria eta itzultze bilerak antolatzen dira familia, tutore eta Elkarbizitza/hezkidetza arduradunarekin. Honela, talde kohesioa eta ikasle bakoitzaren integrazioa bultzatzeko edota edozein jazarpen/bazterketa kasu aurreikusteko eskuhartzea bermatzen dugu.

- Eskola eta Gizarte zerbitzuen elkarlanetik, Garatuz-eko **EISE** programa daramagu aurrera. Berdinen arteko harremanetan gabeziak edo estrategia faltak dituzten ikasleei zuzendua dago.
- **Zaindu programa**, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoekin egiten den tailerra da. Honekin, **zaintza lanekin zerikusia duten estereotipoei buruzko hausnarketa eta pentsamendu kritikoa bultzatzen dugu.**
- Droga-mendekotasunari dagokionez, **tabakoari** buruzko saio bateko tailerra egiten da Lehen hezkuntzako 6. mailakoekin.
- **Teknologia berriei** dagokionez, tailer ezberdinak egiten ditugu, Lehen Hezkuntzako 5. mailakoentzat. Bi orduko saio bakarra

izaten da eta Mankomunazgoak antolatzen du .

- Ertzaintzaren eskutik, "**sareetako arriskuak**", ziberjazarpenaren ingurukoa, eta "Pantallas amigas" elkartekoen eskutik zenbait tailer: **ziberjazarpena, ziber sexu- jazarpena** (sexting, grooming, sextorsion...) eta **hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista**. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei bideratuta, gaur egun, eskolako digitalizazio batzordeko irakasle batek ematen du formakuntza.

Gaur eguneko ikasleen arteko harremanen **hizkuntza ez sexista eta hausnarketa eta pentsamendu kritikoaren lanketa** bultzatzeko helburu duena).

- Ikastetxeak zientzien lanketarik apostu eginez, **STEAM** proiektuan eta **sare hezkuntzan** murgilduta gaude. CIE AUTOMOTIVE_ROBOTIKA herriko enpresak bideratuta, robotikako proiektua daramagu aurrera, formakuntzak eta materiala proiektu honen diru laguntzak ahalbidetuz.
- Berritzeguneak aurrera eramaten dituen hainbat **mintegian** hartzen dugu parte: Bizikidetzaren eta hezkidetzaren, Ikasketa buruen mintegia, zuzendarien mintegia, logopedia mintegia, heziketa bereziko mintegia (PT), aholkularien mintegia, Agenda 2030, ADI programa eta BeA mintegian.

2014. urtean hasi ginen **Hezkidetzaren mintegian** parte hartzen, eta honekin lotutako hainbat hitzaldietan hartu dugu parte, adibidez, Emakundek antolatzen duen Nahiko programaren jardunaldietan, honela Carmen Ruiz Repullo bezalako hezkidetzako erreferenteak entzuteko aukera izan dugu eta bere materiala klustroari zuzendutako sentsibilizazio formakuntzetan erabili da.

- Ikastetxeko espazioak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduerak osagarri erantzunez, "**Amesten dugun jolastokia eraikitzen**" proiektua 2017-2018 planifikatzen hasi eta 2018-2019. ikasturtean, proiektuaren prozesua jarri zen martxan. Eskolako patioa eta inguruko belargunea haurren beharretara egokitzeko beharrezkoa zen eraldaketarako irizpideak zehazteko elkarlanean aritu ginen eskola komunitate osoa.
- Gaur eguneko gizarte, herriaren ezaugarri eta genero ikuspegiaren oinarritutako hausnarketa, diagnosis eta zergatien azterketa

egin zen lehenengo fase batean.

- Txatxilipurdi elkartearen eskutik herritar, eskolako familia, irakasle eta ikasleen nahiak batu ziren, prozesu partehartzaile honetan. Prozesu honetatik irtendako emaitzetatik, amesten dugun patioa, aukera hezkidetzaille, naturarekin kontaktua eta jolaserako aukera amaigabeak eskaintzen zituela esan dezakegu.

Momentu honetan, 2024-2025. Ikasturtean, proiektua udalaren ardurapean, ELE arkitektoak egindako proiektuaren lehenengo fasea hasteko prozesuan gaude.

- Zeharka zein espezifikoki data hauetan, bereziki lantzen diren gaiak, Azaroak 25 **Nazioarteko emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna**, martxoak 8, martxoak 21, **Arrazakeriaren aurkako nazioarteko eguna**, **Nazioarteko emakume langilearen eguna**, maiatzak 2, **Eskola jazarpenaren aurkako eguna** , maiatzak 17 , **LGTBIQ fobiaren kontrako eguna** eta maiatzak 21, **kulturartekotasunaren eguna dira**. Elkarbizitza/hezkidetza batzordeak antolatzen dituen ekintzak, eskola komunitate guztiak parte hartzekoak dira, honela gizarteko eta herriko **emakumeen ekarpenen integrazioa**, **berdintasunean oinarritutako hezkuntza eta indarkeriaren aurkako prebentziorako ekintzak antolatzen dira**. Ekintza batzuen ohiturak sustatu nahi ditugu, data hauen lanketa sistematizatu diren bezala.

- Mainer del Rio psikologoa

2022-2023 ikasturtetik aurrera eta urtero, eskolak eta IGEk, udalarekin elkarlanean, eskolan aholkulari eta kolaborazioak egiten dituen psikologia proiektua dago, eskola komunitate osoari bideratuta. Ikasleen osasun eta ongizate emozionalari begira ezinbestekotzat jotzen dugu proiektu hau.

Elkarbizitza eta hezkidetza behatokia oso errotuta dago eskolan, baita funtzionamendua ere. Batzordeko irakasle eta ikasleak, familiak, udala eta zerbitzuetako ordezkariak osatzen dugu. 2023/2024 ikasturtetik aurrera, Agenda 2030eko arduradun eta ordezkariak ere behatoki honetako partaide dira.

Behatokia, ikasturtean birritan elkartzen da sistematikoki, ikasturte hasieran, planifikaziorako eta ikasturte amaieran baloraziorako. Bitartean beharrezkoa balitz, bilduko ginateteke edozein gai tratatzeko.

Batzordeko ikasle eta irakasleak, hiruhilabete bakoitzean biltzen gara, ikasle ordezkariak beste ikasle guztien kezak, ardurak eta proposamenen bozeramaile gisa, geletara zein batzordera doazelarik.

BAT taldeko funtzionamendua eta BIZIKASI ekimenaren oinarriak azaltzera ere badoaz ikasturte hasieran geletara. Baita arestian aipaturiko gaien kanpainen sorkuntzan parte hartzean.

3. HELBURU OROKORRAK

1. Bizikidetza positiboa izatea.
Norberaren eta besteren iritziak errespetatuz komunikatzea; hau da, modu asertiboan adieraztea eta, beste pertsonen iritziak eta nahiak entzutea eta kontuan hartzea.
2. Eskola komunitatea osatzen dugunon parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
3. Taldean ikastea eta lan egitea, bakoitzak bere ardurak onartuz eta elkarlanean aritzea.
4. Giza eskubideen ondoriozko printzipio etikoak ezagutzea eta honen arabera bizitzea eta elkarbizitzaren oinarritzko gizarte-arauak betez jokatzeko.
5. Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.
6. Hezkidetzan oinarritutako eskola irizpideak ezartzea, genero ikuspegia eskolako ekintza eta funtzionamendu orokorrean txertatuz.



4. HELBURUEN LORPENA BULTZATZEKO EGITURAK

a) Jarduteko irizpide eta ildo orokorrak

EKINTZAK	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Eskolako funtzionamendu egokirako barne antolakuntza	Zuzendaritza taldea	Ikasturte guztian zehar	Taldeak eta batzordeak Zuzendaritza taldea, pedagogika, proiektu eta eskolako arduratarako batzordeak.	Egin beharreko proiektu, dokumentu eta ekintzak aurrera eraman diren.
Irakaslegoaren , familien eta irakaslegoa ez den langileen sentsibilizazioa eta formakuntza <ul style="list-style-type: none"> • Hezkidetza • Bizikasi 	Elkarbizitza / Hezkidetza batzordea. Bizikasi arduraduna	Ikasturte hasieran Bizikasi eta ikasturtean zehar ekintzen arabera.	Elkarbizitzako materiala. Hezkidetzako materiala. “pedagogia feminista eraiten” proiektua. Bizikasiko materiala.	Ikasturte amaierako eta ekintza bakoitzeko balorazioa.
Eskola komunitatea osatzen dugun erakundeekin elkarlana. (Osakidetza, IGE,Udaleko sail ezberdinak, gizarte zerbitzuak...)	Zuzendaritza taldea, Elkarbizitza/hezkidetza	Ikasturte osoan zehar, beharren arabera	Eskolan lantzen ari garen materiala eta gai bakoitzari buruzko ekarpenak.	Aktak eta balorazioak.



Elkarbizitza-Hezkidetza plana

Elkarbizitza behatokia	Elkarbizitza/Hezkidetza batzordea	Ikasturte hasieran eta amaieran batzorde osoko batzar finkoak. Ikasturtean zehar, irakasle ordezkarien batzarra astero eta ikasle ordezkarien batzarra hilero.	Ikasturtean zehar landuko diren gai bakoitzari dagokion materiala, hezkidetza, elkarbizitza, bizikasi.	Ikasturte hasieran programatutakoa beteden. Aktak eta balorazioak.
Eskolako eta jantokiko arauen irakurketa. Gelako arauen adostea sortzea gela guztietan.	Tutoreak eta Elkarbizitza/Hezkidetza batzordea.	Ikasturte hasieran. Arauen irakurketa sinkronizatua. Gelako arauen adostea eta eraketa eskolako gela guztietan egiten da saio berean.	Arauen dokumentuak, ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua eta jantokiko jarrera desegokien intzidentzia orria.	Gela guztietan arauen kopia bat ikusgarri egon behar da eta gelako arauak ikusgarri baita.
Ikasle guztien iritziaketa proposamenen jasotzea.	Elkarbizitza/Hezkidetza batzordeko ikasle ordezkariak. (LH4, LH5, LH6)	Hilabete bakoitzaren azken ostiraletako jolas-orduetan.	Iradozikunak batzeko koadernoak eta txaleko identifikagarriak.	Batu diren proposamenak baloratu eta posible den heinean aurrera eraman diren, aktan jasota geratzen da.
Herriko elkarte ezberdinekin elkarlana. (Dominika, Zaldibarreko jendeak, Ongi etorri Olentzero eta Mari Domingi) Amesten dugun jolastokia eraikitzen, Gaztelekua eta Zapatublai...) Data aipagarri eta herriko ekintzetan.	Elkarbizitza/Hezkidetza batzordea	Ikasturtean zehar	Eskolako, berritzeguneko eta elkarteetako materiala, data aipagarri edo lantzeko gaiari dagokiona.	Aktak, memoriak eta balorazioak.



Elkarbizitza-Hezkidetza plana

(Gabonetako ekintzak, inauterietako ekintzak, azaroak 25, martxoak 8, maiatzak 2, maiatzak 17 maiatzak 21, herriko zaintza sarea....)				
Ikasleentzako formakuntza saioak EISE programa BIDELAGUNA programa LH5/LH6 .Tratu onak .Teknologia berriak. . Sareetako arriskuak. .Emargi tailerra LH3/LH4 .Zaindu programa . Sexualitatea	Elkarbizitza/Hezkidetza batzordea. Ikasketa burua. Mankomunazgoa, udaleko berdintasun saila, Ertzaintza eta enpresa ezberdinen kolaborazioarekin.	Ikasturtean zehar zehaztuta dauden datak.	Formakuntza bakoitza ematen duenaren materiala.	Amaitutakoan egiten den memoria eta balorazioa.
Tutoretza saioak eta banakako tutoretzak	Tutoreak	Ikasturte guztian zehar, astero eta behar denean.	Gizagune materiala. Adimen emozionala materiala. Bizikasi materiala. Emoziotegia. Hiru begi txantiloia	Ebaluaketa saioetan baloratzen da, eta behar bada, Bat taldeko batzarretan.
Gatazken kudeaketarako estrategiak, adostokiaren erabilera.	Tutorea, irakasle espezifikokoak, jantokiko arduradunak, zuzendaritza, Bat taldea.	Behar den momentu guztietan	Adostokia Gertatutakoaren idatziak, konpromisuak, jantokiko jarreraren	Jarrerak bideratu diren eta gatazka konpondu.



Elkarbিতza-Hezkidetza plana

			desegokien intzidentzia orriak, eranskinak	
Ikasleen kolaborazioak eskolan. LH6. Eta LH5. Mailakoak laguntzaileak dira HHko ikasleen siesta prestatzen, jaialdietako kalejiretan, jantokian....	Tutoreak, elkarbিতza/hezkidetza batzordea eta zuzendaritza taldea.	Ikasturtean zehaztutako ekintzetan.	Ordutegiak	Balorazioa
Jantokiko jolas-orduko jolasen antolakuntza.	Elkarbিতza/hezkidetza batzordea eta Jantokiko arduraduna.	Jantokiko jolas-ordu guztietan.	Prestatutako jolasak, materiala.	Ikasleen parte hartzea eta balorazioa.
Jolas-orduetako materialaren erabilera, guneen banaketa.	Elkarbিতza/hezkidetza batzordea, ikasleak eta tutoreak.	Jolas-orduetan	Jolas motak erabiltzeko txanda ordutegia	Ikasle eta irakasleen balorazioa.
Behaketa sistematikoak egin ikasleen harremanak eta egoera emozionalaren jarraipena izateko	Tutoreak, BAT taldea		Hiru begi behaketa txantiloia	Ebaluaketa bakoitzean behaketaren adierazleak atertzen dira eta banakako tutoretza planean kontenplatu eta programatu.
Ongizate emozionalerako psikologo zerbitzua	Maidar del Rio	Ikasturte guztian zehar astelehenetan 16:30- 18:30 ostiraletan 9:00-16:00	Tertuliak eta banakako saioak ikasle, irakasle ,AZP langile eta familiekin.	Balorazioak

b) Planaren urteko plangintza+ batzorde artekoa

Irailetik eta ekainerarte landu beharreko gaiak, zeharka landuko dira batzorde guztien arteko elkarlan antolatuan. Bilgunea, "Sutondoa" izango da, bertan gai ezberdinei buruzko lanketa, hausnarketa, elkarlana eta eskola komunitate osoko kolaborazioa sustatuko da.

5.-ZABALKUNDEA.

Eskolako webgunetik, familiei eta eskolako irakasleei helarazten zaie beharrezko informazioa. Ekintza bakoitzaren informazioa, argazkiak eta bideoak, bertan dago elkarbizitza plana ikusgarri. Elkarbizitza/hezkidetza behatokian eskola komunitatea osatzen dugunon ordezkariak gaude.

Eskolako arautegian eragina duen edozein erabaki edo neurri hartu aurretik, Eskola kontseiluak onartzen du.

Batzordeko ikasle ordezkariak, beste ikasle, irakasle edo eskolako langile guztien proposamenak eta ardurak biltzen dituzte hiruhileko bakoitzean behin jolastokietara irtetzean eta guzti hauek jasoz. Batzordean irakurri eta ordenatu ostean, geletan emango da azalpena eta dagokion arduradunari helaraziko zaio (irakasle, zerbitzuetako langile, zuzendaritza, udala...)

6. ELKARBIZITZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ikastetxeko urteko planean programatutako elkarbizitza/hezkidetza ekintza guztiak, ikasturte amaierako memoriane baluatu eta baloratzen dira. Batzordeak egiten du ekintza guztien jarraipena eta balorazioa. Ekintza batzuk finkatuta daude, balorazioetatik ateratzen dira egin beharreko moldaketak. Baita proposamen berrien balorazioa hurrengo ikasturteetarako.

7.ERANSKINAK

1. Eranskina;

- Eskolako arauak
- Jantokiko arauak eta intzidentziak.

2. Eranskina;

- Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua.
- Zaldibarreko eskubide eta betebeharren dokumentua.



ERANSKINAK

1. ERANSKINA

ESKOLAKO ARAUAK / NORMAS DE LA ESCUELA

1.-Eskolara garaiz heldu. Lasai egon musika hasi arte. Ser puntuales. Esperar tranquilamente a que suene la música para entrar.

2.-Errespetuz jokatu , beti, gurea artean zein gauzekin. Ez egin besteari zuretzat ez duzuna nahi. Besteen gauzetan ez ibili baimen barik (motxila, mahaie,...) Comportarse , siempre, respetuosamente tanto entre nosotros y nosotras como con el material escolar. “No hagas lo que no quieres que te hagan”. No hurgar en las cosas de los/las demás: mochila, mesa...

3.-Eskola barruan lasai hitz egin , astiro ibili, ondo jesarrita egon, atea jo eta agurtu , hitz egiteko txanda eskatu, ... En el recinto escolar hablar tranquilamente, andar sin correr, cuidar nuestra postura al sentarnos, saludar, pedir el turno de palabra, llamar a la puerta...

4.-Eskolako esparrutik ateratzeko guraso edota arduradun baten laguntza behar da. Patiotik kalera jausten bazaigu baloia, ... heldu bati laguntza eskatu . Para salir de la escuela en horario escolar es necesario estar acompañados/as de una/un adulta/adulto responsable. Si sale el balón a la calle... pedir ayuda a una/un adulta/adulto.

5.-Aterpea baloi eta pilota gabeko gunea da. El porche de la escuela es un espacio sin balón.

6.-Etixerako lanak leku egokian egin. Hacer los deberes donde corresponde.

7.-Bazkaldu aurretik eskuak garbitu eta txiza , komunean, egin(dutxan, patioan,...ez). Lavarse las manos antes de comer . En el patio, en la ducha... no se puede hacer pis.

8.-Materiala, argia, ura ondo erabili. Birziklatu. Usar el agua, la luz, el papel... adecuadamente. Reciclar.

NEURRI ZUZENTZAILEAK

MEDIDAS CORRECTORAS

- 1.- Azkena sartu. Gurasoei komentatu.** *Entrar el último, esto se comunicará a la familia.*
- 2.-Barkamena eskatu. Eginbehar bat bete beharko da.**
Se disculpará. Asumirá una tarea.
- 3.-Berriro errepikatu ekintza era egokian.** *Repetir la acción de manera adecuada.*
- 4.-Laguntza eskatu heldu bati.** *Pedir ayuda a una persona adulta responsable.*
- 5.-Baloia edota pilota egun bat / batzuetarako kenduko da.** *Se quedará sin balón unos días.*
- 6.-Familiarekin hitz egingo da.** *Se le comunicará a la familia.*
- 7.- Gelan, jantokian, zuzendaritza..., lagunduko da. Patioa garbituko da.** *Se ayudará en la escuela: aula, comedor, patio...*
- 8.-Apurtutakoa konpondu beharko da.** *Se repondrá lo estropeado, perdido...*

JANTOKIKO ARAUAK

NORMAS DEL COMEDOR

- **Begiraleak, kideak eta irakasleak errespetuz tratatu eta errespetuz hitz egin.** *Hablar y tratar con respeto a las /los monitoras/ monitores del comedor.*
- **Eskolako materiala errespetuz erabili.** *Utilizar responsablemente el material de la escuela.*
- **Bazkariak irauten duen bitartean modu egokian jesarri.** *Permanecer sentada /sentado adecuadamente durante la comida.*
- **Ondoan ditugun kideekin bakarrik hitz egin, tonu egokian.** *Hablar solamente con las / los compañeras / compañeros más cercanas/ cercanos en un tono adecuado.*
- **Jateko tresnak modu egokian erabili.** *Utilizar los cubiertos de manera adecuada.*
- **Denetik probatu.** *Probar de todo.*
- **Zabor eta plastiko ontziak ondo erabili.** *Utilizar de manera adecuada los contenedores de reciclaje.*
- **Jantokiko atsedendietan jarrera egokia izan eta arauak errespetatu.** *En el recreo del comedor, comportarse adecuadamente y respetar las normas.*
- **Sarrerak eta irteerak astiro eta lasai egin.** *Entrar y salir del comedor de manera adecuada.*

NEURRI ZUZENTZAILEAK

MEDIDAS CORRECTORAS

- **Bete ez den arauaren arabera jarriko dira eta familia jakinaren gainean egongo da beti.** *Se aplicarán según la norma que se haya incumplido.*
- **Jantokian zerbait garbitu edo batu.** *Recoger o limpiar en el comedor.*
- **Baloi barik geratu egun batzuetarako.** *Quedarse sin balón durante unos días.*
- **Patioa garbitu.** *Limpiar el patio.*
- **Apurtutakoa konpondu.** *Reponer o arreglar lo estrope*



2.ERANSKINA

Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua.

<https://www.euskadi.eus/ikasleak-orientabideak-eskubideak-betebeharrak/web01-a2hikas/eu/>

Zaldibarreko eskubide eta betebeharren dokumentua.

<file:///N:/0/01%20Dok%20nagusi/15%20ELKARBIZITZA-HEZKIDETZA/2023-2024/Ikasleen%20eskubideak%20eta%20betebeharrak.pdf>